

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroko azpilursailak erabiltzeko baldintzak eta horiek eskuratzeko prozedura xedatzen dituen araudi berriari behin betiko onespina ematea

Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroko azpilursailak erabiltzeko baldintzak eta horiek eskuratzeko prozedura xedatzen dituen araudi berriari hasierako onespina ematea erabaki zuen Gasteizko udalbatzak 2022ko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuran.

Erabaki horren jendaurreko erakustaldian (2022ko apirilaren 6ko ALHAO, 41. zk.) erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jotzen da behin-behineko erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ildotik.

7/1985 Lege horren beraren 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera, testu oso argitara ematen da, indarrean jar dadin.

Behin betikotzat jotzearen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokitzat jotzen den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko ekainaren 23an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

BASALDEA NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO ENPRESEN ZENTROKO AZPILURSAILAK ERABILTZEKO BALDINTZAK ETA HORIEK ESKURATZEKO PROZEDURA XEDATZEN DITUEN ARAUDIA

Zioen azalpena

1. Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak bere helburu orokorra betetzeko, hau da, tokiko ekonomiaren garapena sustatzeko eta horretarako laguntza emateko duen tresnetako bat da 'Basaldea' nekazaritza ekologikoko enpresen zentroa —zeharkako helburutzat jotzen da emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea—.

Lehen sektoreko jarduerak modu ekologikoan garatzeko lursailak, ekipamenduak eta azpiegitura komunak utziz nekazaritza ekologikoaren sektorean ekintzailatza sustatu nahi duen ekimen gisa definitzen da.

Ekimen hori Basaldea udal proiektuaren baitan sartzen da; udal proiektu hori Europako Itun Berdearen "From farm to fork" estrategiarekin eta Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategiarekin lerratzen da. Besteak beste, nekazaritza ekologikoa sustatu nahi da horren bitartez, epe ertainean enplegua eta negozioak sortuz Arabako nekazaritza produktu ekologikoak ekoiztu eta banatzearen alorrean eta ekoizpen iraunkorarekin esparruan.

2. Nekazaritza-enpresa ekologikoen Basaldea mintegiaren funtzionamendua, kudeaketa eta administrazioa arautzea beharrezkotzat jo zelarik, 2014ko abuztuaren 24an egindako osoko bilkuran onetsi zuen Gasteizko Udaltzaren Basaldea enpresen mintegiko azpilursailak eskuratzeko prozedura finkatzen eta horien erabilera, gozamina eta ustiapena xedatzen dituen araudia, eta urte hartako irailaren 24ko ALHAOn (108. zenbakia) argitaratu zen.

2016ko abenduaren 23an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Basaldea baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegian — Abetxukuko A-3601 errepidea, z.g. — nekazaritza erabilerako landa izaerako lursailak erabiltzeko lizentzien esleipena arautzeko deialdia eta oinarriak; 2017ko urtarrilaren 25ean argitaratu zen deialdia, eta harrezkero zabalik geratu zen eskabideak aurkezteko epea, etengabe.

3. Enpleguari eta garapen ekonomiko iraunkorrari buruzko batzorde txostengileak 2017ko martxoaren 16an egindako ohiko bilkuran aurkeztu zen Basaldea proiektua.

Enpleguari buruzko batzorde txostengileak, talde politiko guztien adostasunez, araudi hori aldatzeko eskatu zion sailari, eta esleipendunek mintegian egoteko epea luzatzea, oraingo 5 urteko epeetik 10 urteko epera.

2017ko abenduaren 11n, Udal Aholkularitza Juridikoak mintegiko lursailak gehienez 75 urterako emakida-erregimenean esleitzearen aldeko txostena egin zuen, konkurrentzia-erregimena baliatuz, eta baratze-lursail ekologikoak egiteko ustiatzearen.

Egindako eskaera kontuan hartuz, eta mintegiko lehen lursailak esleitu ondoren hobetu daitezkeen beste alderdi batzuk antzeman zirelarik, sailak oraingo araudia aldatzea proposatu zuen.

Araudia aldatuz konpondu nahi diren arazoak:

- Egonaldia (5 urte) laburregia da proiektuen bideragarritasuna baliozkotzeko.
- Enpresa gisa alta emateko epea (15 egun) oso laburra da.
- Enpresa-proiektua osatzen duten pertsona guztientzat erroldan antzintasun jakin bat eskatzea (urtebete gutxienez).
- Proiektu jakin batzuk sartzeko mugak, duten izaera juridikoagatik edo helburuengatik ez baitute parte hartzeko aukerarik (esate baterako, irabazi-asmorik gabeko elkarteak).

Orobat, nekazaritza-proiektuen kopurua handitu nahi da, eta Basaldea baratzezaintza ekologikoko mintegia babestu eta haren balioa nabarmendu.

4. Gasteizko Udaleko alkate lehendakariaren 2021eko martxoaren 15eko ebazpenean aurreikusitakoaren ildotik, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aurretiko kontsulta publikoaren fasea abiatu zen; 2021eko apirilaren 8an argitaratu zen hori udalaren iragarki-taulan, planteatutako alderdi horietaz herritarrek, antolakundeek eta elkarteek zuten iritzia jasotzearen.

Aldi berean, berariazko gonbita egin zitzaizkien entitate hauei, prozesuan interesdun izan zitezkeelakoan:

- UAGA (Arabako Nekazarien Elkartea).
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (EkoLurra).
- Euskadiko ekoizle ekologikoen elkarteak (Bionekazaritza eta Natuaraba).
- Azoka Plazako Merkatarien Elkartea.
- HAZI Fundazioa.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila.

5. Natuaraba Elkarrekin ekarpen bat aurkeztu zuen aurretiko kontsulta publikorako epean, eta testu honetan proposatutako araudian aintzat hartu dela jotzen da.

6. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasota dauden erregulazio onaren printzipioei erantzuten die araudiak.

Horrela, bada, premia-printzipioaren ildotik, interes orokorreko arrazoiek justifikatzen dute araua, aurreko paragrafoetan azaldu bezala; izan ere, Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresa zentroko azpilursailak erabili nahi dituzten pertsona guztien eguneroko eremuari eragiten dio, eta izaera arautzaileko xedapen baten bitartez baino ezin da lortu hori.

Bestalde, efikazia-printzipioaren ildotik, gorago adierazi diren helburuak lortu nahi dira arauaren bitartez.

Proporzionaltasun-printzipioaren ildotik, azpilursailen erabilera arrazionala bermatzeko ezinbestekoa den erregulazioa biltzen du ordenantzak.

Segurtasun juridikoaren printzipioa aintzat harturik, udal-eskumenen esparrura mugatzen da araudia, eta bertan garatzen, eta arau-esparru egonkorra sortzen du, iragartzeko modukoa, integratua eta argia, zeinek ziurtasuna ematen baitu, eta inplikaturako pertsona guztiek ezagutu eta uler dezatela ahalbidetzen. Aldi berean, Basaldeko azpilursailak erabiltzeko marko malgua eratzen du.

Orobat, efizientzia-printzipioari erantzuten dio araudiak, beharrezko ez diren administrazio-kargak, pertsonentzat baztergarriak direnak, ekiditen dituelarik, eta baliabide publikoen kudeaketa sinplifikatu eta arrazionalizatzen.

Araudia dela eta, generoaren araberako eraginaren txostena egin da, Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta abuztuaren 21eko 40/2012 ebazpena betetze aldera.

Aurkibidea

Atariko Titulua.

1. artikulua. Araudiaren xedea eta aplikazio-eremua.

2. artikulua. Erregimen juridikoa.

3. artikulua. Xede-publikoa.

I. Titulua. Erabilera- eta ustiapen-baldintzak.

4. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

5. artikulua. Erabilera-baldintza orokorrak.

II. Titulua. Esleipen-prozedura.

6. artikulua. Azpilursailen esleipena.

7. artikulua. Esleitzeko betekizunak.

8. artikulua. Hasieran aurkeztu beharreko dokumentazioa.

9. artikulua. Esleipen-prozedura.

10. artikulua. Eskabideei baremoa aplikatzea.

11. artikulua. Dokumentazioa eta modua.

12. artikulua. Jarduerari hasiera ematea, prezioa eta gastuak, eta emakidaren baldintzak.

13. artikulua. Eskualdatzea eta iraungipena.

III. Titulua. Erantzukizun-erregimena.

14. artikulua. Esleipendunaren erantzukizuna.

15. artikulua. Lehengo egoerara bihurtzea.

- IV Titulua. Diziplina-erregimena.
16. artikulua. Arau-haustea.
17. artikulua. Saikapena.
18. artikulua. Ikusapena.
19. artikulua. Zigorrak.
20. artikulua. Zigorretako eskumena duen agintaria.
21. artikulua. Prozedura zigortzailea.
- Xedapen indargabetzaile bakarra.
- Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Atariko Titulua

1. artikulua. Araudiaren xedea eta aplikazio-eremua

1. Nekazaritza-lursailak esleitzeko prozedura arautzea du helburu araudi honek, baita bertako jarduera, funtzionamendu-araudia eta erabiltzaileen erantzukizunak ere.

2. Gasteizko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorreko I-911 epigrafean ageri den udal lursaila da araudi honen aplikazio-eremua —katastro-erreferentzia: 80. poligonoa; 3, 4, 5 eta 6 lursailak; SIGPAC erreferentzia: 43. poligonoa, 553, 554, 555, 556, 557 eta 628 lursailak—, zeinen gainean baitaude kokatuta azpilursailak (I. eranskina. Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroaren eta azpilursailen plano).

2. artikulua. Erregimen juridikoa

1. Azpilursailen erabilera bat dator Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 75. artikuluko 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako jabari publikoko ondasunen erabilera pribatibo eta ohikoarekin; horrenbestez, azpilursailak ustiatzeko emakida eskatzaileen arteko lizitazioaren bitartez esleitu behar da, araudi honetan ezartzen diren lehentasun-betekizunak betez eta Administrazio Publikoaren Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. artikuluko 1., 2., 3. eta 4. puntuetan ezarritako moduan.

2. Azpilursailak esleitu, eduki eta baliatzeari dagozkienetan, araudi honetan —baita egiten diren deialdietan ere— aurreikusten den erregimena aplikatuko da.

3. Administrazio Publikoaren Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudian emakidaren figurari buruz jasotako arauak aplikatuko dira.

3. artikulua. Xede-publikoa

Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroa ekimen publikoko espazio fisiko gisa eratzten da, honelakoei ezartzen, garatzen eta sendotzen laguntzeko xedez:

- Nekazaritza sektoreko ekintzaileak.
- Nekazaritza enpresa sortu berriak.
- Proiektu berritzaileak edota proiektu pilotuak, zuzenean edo zeharka balio erantsi argi eta esanguratsua badakarkiote tokiko nekazaritza ekologikoaren sektoreari.

I. Titulua. Erabilera- eta ustiapen-baldintzak**4. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak**

1. Eskubide hauek izango dituzte esleipendunek:

- Instalazioak kontserbazio- eta mantentze-egoera onean jasotzea.
- Lurra lantzetik ateratzen dituzten fruituak jasotzea, eta horiek merkaturatzea, baldin eta indarrean dagoen legerian —zerga, lan eta merkataritza legerian— ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- Elementu komunak erabili, baliatu eta ustiatzea. Basaldearen jabetzako makineria komuna eta lanabes komunak erabiltzea, dagokion protokoloan jasotako baldintzekin.
- Enpresa-proiektua dela eta eskatzen zaien informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea.
- Ukuiluratu gabeko abereak edukitzea, baldin eta abeltzaintza ustiategien erregistroari (REGA), animalien identifikazio eta erregistroari, animalien osasunari eta animalien ongizateari buruz indarrean dauden araudiak betetzen badira eta gainerako ordenamendu juridikoan baimentzen bada.
- Esleipendunen, udal-arduradunen eta Basaldea kudeatzeko kontratatutako enpresaren arteko jarraipen-bileretan eta sinergiak sortzeko bileretan parte hartzea.
- Azoka-plazan horretarako erabilgarri dauden eraldaketa- eta salmenta-instalazioak erabiltzea.
- Inbertsio berriak eta makineria eta tresna komunen erosketak proposatzea, dagokion protokoloan jasotako baldintzekin.

2. Betebehar hauek izango dituzte esleipendunek:

- Nekazaritza ekologikoaren arauak betetzea. Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketazeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Erregelamenduan (EE) eta hori garatzeko gerora onetsi diren araudietan ezarritako arauekin bat datozen ekoizpen metodoak erabiltzea joko da ekoizpen ekologikotzat.
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (EKOLURRA) izena ematea.
- Nekazaritzako erregistro ofizialetan izena ematea: nekazaritza-ustiategien erregistroa (REA), nekazaritza-ekoizpenaren erregistro nagusia (REGIPA), eta, kasua bada, abeltzaintzako ustiategien erregistroa (REGA).
- Jarduera sailkatuaren arauzko udal-lizentzia eskuratzea, 20 abelburu handitik gorako abeltzaintza-ustiategirik ezartzekotan. Gainerakoak, jarduerari ekin aurretiko komunikazioaren erregimenari lotuta egongo dira, salbu eta autokontsumora diren ustiategiak, eta abeltzaintza-ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenaren inguruak ezarri zireneko irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan xedatutakoa aplikatu beharko dute. Hori guztia, aplikatzekoak diren abeltzaintzaren arloko bestelako xedapenak eta erregistro-prozedura administratiboak gorabehera.
- Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorrerako araudia — 1311/2012 Errege Dekretua eta geroko garapenak— betetzea.
- Nekazaritza-ekoizpen primarioaren higieneari buruzko araudia —9/2015 Errege Dekretua eta geroko garapenak— betetzea.
- Instalazioak ongi erabiltzea, lursailak jaso zituzteneko egoeran edo hobean mantentzea eta beste esleipendun batzuek erabili ahal izateko moduko egoera egokian itzultzea.

- Jatorriz uzten zaien lursailaren egitura eta azalerari bere horretan eustea, Udalak ezarritako mugak aldatu gabe eta, halaber, inongo obra edo itxiturarik egin gabe, salbu eta eskumena duen udal organoak aldeztu aurretik horretarako baimena ematen dielarik.

- Anomaliarik, gorabeherarik edo arazorik sortuz gero, Udalari jakinaraztea; presazkoa bada, berehala jakinaraztea.

- Espazioak ahalik eta garbitasun, kontserbazio eta higiene egoerarik onenean edukitzea, eta hondakinak behar bezala kudeatzea.

- Gainerako erabiltzaileak eta instalazioen beharrez arduratzen direnak errespetatzea, haien jarduerak oztopatu gabe.

- Proiektuaren garapenaren inguruan eskatzen diren informazioa ematea Udalari, haren ikuskaritza lanak erraztea, eta proiektuan diharduten pertsonen zerrendan gertatzen den aldakuntza ororen berri ematea.

- Udalak antolatzen dituen bisitak baimentzea, eguna eta ordua aldeztu aurretik jakinarazten zaielarik. Horrek ez du eragotziko araudi honen 5.2 artikuluan xedatutakoa betetzea.

5. artikulua. Erabilera-baldintza orokorrak

1. Ez dago baimenduta:

- Beharrezkoa denean pasaporte fitosanitariorik ez duen landare-materiala (haziak, landareak, zuhaitz-landareak etab.) erabiltzea.

- Baimenduta ez dauden defentsa fitosanitarioko baliabideak erabiltzea.

- Nekazaritza arloko legeria orokorrean eta ekoizpen ekologikoko araudian baimenduta ez dauden substantziak erabiltzea.

- Horretarako egokিতa ez dagoen edozein lekutatik ekartzea ura, ureztatzeko, lursail guztiek baitute zeinek bere hartunea.

- Ur-gastua labore bakoitzaren beharretatik eta emakidak erabilgarri duen emari-banaketatik gorakoa izatea.

- Lur-lantze edo tratamenduekin azpilursailaren edo negutegiaren mugak gainditzea.

- Belarrak edo labore hondarrak erretzea, edo bestelako surik egitea, mintegiaren esparruaren barruan.

- Azpilursailen gainerako erabiltzaileei enbarazu egitea, esan nahi baita ezingo dutela erabili haiei enbarazu, kalte edo zauririk eragin diezaiekeen tresna, mekanismo edo sistematik.

- Azpilursailen materialak edo lanabesak uztea edo pilatzea, salbu eta lurra lantzeko ezinbesteko direnak.

- Berariaz lurra lantzearekin zerikusirik ez duten elementuak instalatzea, aldeztu aurretik eskumena duen udal-organoren baimena eskuratu gabe.

- Esparruan lo egitea, edo gainerako esleipendunei enbarazu sor diezaieketen jarduera ludikoak egitea.

- Araudi honetan edo geroko deialdietan aurreikusten ez den beste edozein jarduera.

2. Esleitutako espazioak ikuskatzeko ahalmena izango du Udalak, kontserbazio egoera egiaztatzeko, eta egokitzen dituen konponketak agindu ahal izango ditu.

3. Esleipendunek azpilursaila zer jardueratarako hartzen duen hartarako beharrezko diren lizentziak, baimenak eta aseguruak egunean edukitzeko betebeharra hartuko dute beren gain, hasierako kontratuak eta geroko berritzeak irauten duten bitartean.

II. Titulua. Esleipen-prozedura

6. artikulua. Azpilursailen esleipena

1. Elkarren arteko lehia baliatuko du Gasteizko Udalak lursailak esleitzeko, titulu honetan xedatutakoari jarraituz. Azpilursail bakoitzak zuzeneko sarbidea izango du, baita ureztatzeko hartunea eta ezartzen diren instalazio komunetarako sarbidea ere; orobat, 4. azpilursailan dauden negutegietako bat erabiltzeko eskubidea izango du.

2. Azpilursaila eta dagokion negutegia erabiltzeko eskubidea emango dio esleipenak sustatzaileari edo sustatzaile-taldeari —lursaila esleitu ahal izateko ezarrita dauden baldintzak betetzen diren artean baino ez ditu izango ondorioak esleipenak—.

3. Esleipendunek ezingo dizkiote esleipenaren ondorio diren eskubideak beste inori utzi, horien gainean kargarik ezarri edo bestetarako baliatu, kontratua bertan behera uztea ekarriko bailuke horrek, salbu eta, izena, forma juridikoa edo akziodunak aldatzen direlarik ere, aldakuntzaren aurreko jarduerari eta langileriari eusten bazaie, eta, pertsona fisiko edo juridikoren bat biltzen delarik hartara, hautatze irizpide objektiboetan finkatutako baldintzak betetzen badira.

4. Azpilursailaren esleipenak 5 urteko iraupena izango dut, emate-agirian ezartzen den berriazko epearen arabera, eta beste 5 urtez luzatu ahal izango da. Itxarote-zerrendarik ez badago, 10 urteko egonaldia bukatzen delarik emakidaren urtez urteko luzapenak eskatu ahal izango dira. Inolaz ere ezingo da gainditu, posible diren luzamendu guztiak barne direla, hamabost urteko aldia, agiria ematen denez geroztik.

Emakidaren edo luzamenduaren agirian finkatutako epea bukatu aurretik eskatu beharko du luzamendua emakidadunak, eta berriazko ebazpena eskatuko du hori emateak.

5. Esleipen aldia bukatzen delarik, esleipendunek aurreko baldintza beretan edo hobeto utzi beharko dute lursaila, berriro ere landu ahal izateko moduko egoeran.

6. Proiektu berritzaileak edo proiektu pilotuak garatzera bideratuko du Udalak azpilursailen bat, baldin eta justifikatuta geratzen bada dena delako pertsonak edo entitateak egiten duen jarduera mintegian kokatutako enpresekin lotuta dagoela jarduera-sektorea dela kausa, edo interesgarritzat jotzen bada han kokatutako enpresekin sinergia eta harremanak sortzeko aukera ematen duelako, edo Basaldea proiektua oro har garatzeko. Dagokion deialdian zehaztuko dira horrelako proiektuak aurkeztu eta balioesteko betekizunak eta lekua erabiltzeko baldintza bereziak.

7. artikulua. Esleitzeko betekizunak

Hauek izan daitezke azpilursailen esleipendun:

1. Betekizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea, eta administrazio publikoarekin kontratatzeko debekua dakarten kasuetako batean ez egotea.

b) Baratzte-jarduera bideragarriko egoki den eta berehalakoan ustiatu ahal izateko prest dagoen inongo landa-lurren jabe ez izatea Arabako lurralde historikoaren barruan.

Basaldean instalatu ondoren horrelako lursailen baten jabe izatera iristen bada esleipenduna, 36 hilabeteko epea emango zaio esleitutako azpilursailari uko egin diezaion, jarduera lursail berrira aldatzeko nahikoa denbora delakoan.

c) Alta emanda egotea, edo esleitzen denetik 12 hilabeteko epean gehienez horretarako konpromiso hartzea, nekazaritza ustiapenei dagokien Gizarte Segurantzaren erregimenean, ekonomia jardueren gaineko zergan —kasua bada—, eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (EKOLURRA). Jarduerari ekiten ez bazaio, edo legezko eran eratzen ez bada, epea amaitutakoan automatikoki baliogabetuko da kontratua. Produktuak saltzen hasteko, ezinbestekoa izango da jarduera alta emanda egotea.

d) Jarduera garatzeko prestakuntza edo/eta esperientzia izatea; zehazki, enpresa-jardueran zuzenean parte hartzen duten pertsonen arlo hauetako prestakuntza izan beharko dute:

– Nekazaritzako zein nekazaritzako elikagaietako ingeniarietza, edo antzekoak.

– Nekazaritza arloko Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako prestakuntza zikloak: nekazaritza ekologikoko ekoizpena, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena, paisajismoa eta landa-ingurua...

– Nekazaritza ekologikoaren arloko profesional-ziurtagiria edukitzea, edo nekazaritza ekologikoaren edo bestelako nekazaritza iraunkorraren arloko prestakuntza-ikastaroak —sektorean onetsitako erakunde edo entitateek emanak— egin izana —250 ordu edo gehiagoko ikastaro bat nahiz ordu kopuru hori osatu arteko hainbat ikastaro—.

Azken betekizun horren lekuan, aski izango da gutxienez 6 hilabeteko esperientzia egiaztatzea nekazaritza ekologikoan edo bestelako nekazaritza iraunkorrean, edo urtebeteko esperientzia ohiko nekazaritzan, eta gutxienez 20 orduko prestakuntza-modulu bat egin izana ekoizpen ekologikora bihurtzeko, lehen kasuan, eta gutxienez 100 ordukoa bigarrean.

Prestakuntzaren zati bat merkaturatzearekin eta enpresak sortzearekin lotutako gaien buruzkoa izango da.

Aipatutako prestakuntza-prozesuetakoren bat egiten ari bada, eta dagozkion matrikula-egiaztagiriak aurkezten badira, gaikuntza-ziurtagiriak geroago aurkeztu ahalko dira, zehazki, azpilursaila esleitzen denetik 12 hilabete geroago gehienez.

Pertsona bat baino gehiagoko proiektuen kasuan, proiektuaren ordezkariari bakarrik eskatuko zaizkio prestakuntza- edo esperientzia-baldintzak.

e) Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalaren oinarrizko mailako txartela edukitzea, edo azpilursaila esleitzuz gero lortuko dela hitzmatea.

2. Enpresa sortu berriek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresa eratzeko estatutuetan ageri den datatik bost urte baino gehiago igaro ez izana.

b) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea, nekazaritza-jarduerarekin zerikusia duten epigrafeetan.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea, eta administrazio publikoarekin kontratatzeko debekua dakarten kasuetako batean ez egotea.

d) Baratze-ustiapen bideragarria ahalbidetuko lukeen eta berehalakoan ustiatu ahal izateko prest dagoen inongo landa-lurren jabe ez izatea Arabako lurralde historikoaren barruan.

Basaldean instalatu ondoren horrelako lursailen baten jabe izatera iristen bada enpresa esleipenduna, 36 hilabeteko epea emango zaio esleitutako azpilursailari uko egin diezaion, jarduera lursail berrira aldatzeko nahikoa denbora delakoan.

e) Nekazaritza ustiapen gisa alta emanda egotea, edo esleitzen denetik hilabeteko epean gehienez horretarako konpromiso hartzea; orobat, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (EKOLURRA) alta emanda egotea.

f) Sustatzaile taldeko kide batek gutxienez aurreko puntuko d) eta e) ataletan jasotako prestakuntza-betekizunak bete beharko ditu.

3. Gainerako pertsona, enpresa edo entitateek proiektu berritzaile eta/edo proiektu pilotuetarako egiten den deialdira aurkeztu ahalko dituzte eskabideak.

4. Aurretik enpresa-zentroan azpilursailen bat erabili duten pertsona fisikoa edo juridikoa ezingo dira esleipendun izan, salbu eta mintegira 2014ko irailaren 24 ALHAOn —108. zk.— argitaratutako Basaldea baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegiko lursailak eskuratzeko

prozedura finkatzen eta horien erabilera, gozamina eta ustiapena arautzen dituen araudiaren babesean sartu diren esleipendunak, baldin eta araudi horren ildotik emandako esleipena gerora bertan behera geratua ez bada.

5. Emakidaren luzapenei dagokienez, esleipendunak horiek bukatu baino gutxienez hilabete lehenago egiten duelarik eskabidea, aldeko txosten teknikoa egin beharko da, non agerian jarriko baita emakidari eusteko premia, proiektuaren bideragarritasunaren zerikusia duten irizpideak edota luzapena gomendatzen duten egoera ekonomikoaren arloko bestelako alderdian aintzat harturik.

Proiektuaren bideragarritasun hori egiaztatze aldera, erantzukizunpeko adierazpena eskatu ahal izango da, egoera behar bezala baloratzeko.

Udal-txosten teknikoa egin ondoren emango da luzapenaren inguruko ebazpena, behin entzunaldi-izapidea gauzatzen delarik.

8. artikulua. Hasieran aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Dokumentazio hau aurkeztu beharko da Basaldean azpilursail bat eskuratzeko eskabidea egitean:

a) Eskabidea bera, Gasteizko Udalaren ereduari jarraituz egina, hauek barne:

1. Araudi honetan zehaztuko baldintza eta betekizunak ezagutzen, onartzen eta betetzen direla dioen zinpeko aitortpena.

2. Zinpeko aitortpena, non adierazten den nekazaritzarako egoki den beste inongo landa-lurren jabe ez dela. Nekazaritza-jarduera bideragarriak garatu ezin den landa-lurrak bazter utziko dira.

3. Zinpeko aitortpena, xedapen hauetan ezarritako debekuetakoren batean ere ez dagoela adieraziz: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71 artikuluan, zeinaren bitartez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak.

4. Gasteizko Udalari baimena ematea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko.

5. Behar izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena, nekazaritza-ustiategi berria sortzeko eta Gizarte Segurantzaren nekazaritza-jarduerari dagokion erregimenean eta ekonomia jardueren gaineko zergan, hala badagokio, alta emateko konpromisoa hartzen duela adieraziz, baita Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (EKOLURRA) alta emango duela ere, hala badagokio, esleipenetik 12 hilabeteko epean gehienez (enpresentzat, hilabeteko epean).

6. Behar izanez gero, prestakuntza-prozesu batean —eskatutako titulazioa eskuratzeko xedez— parte hartzen ari delako erantzukizunpeko adierazpena.

b) Pertsona fisikoa bada, nortasun-agiriaren, pasaportearen edo atzerritarren identifikazio zenbakiaren (AIZ) kopia.

c) Pertsona juridikoa bada, IFZren kopia, eratzeko eskritura, nortasun juridikoa duen entitatearen estatutuak, legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena, eta haren NANaren kopia. Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokion alta-agiria, eta Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean autonomo edo enpresa gisa alta emanda egotearen ziurtagiria.

d) Lagatzeko eskatzen den nekazaritza-lursailen garatu nahi den enpresa-proiektuari buruzko dokumentazioa: enpresa-proiektua, oroitidazki ekonomikoa, eta negozioaren bideragarritasun plana.

e) Enpresa-jardueraren garapenean zuzenean parte hartuko duten pertsonen curriculum vitae-a eta 10. artikuluan jasotzen den baremazioa aplikatzeari dagokionez beharrezkotzat jotzen diren egiaztagiria oro.

f) Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

2. Parte hartzeko betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko ere eskatu ahalko du Udalak, edo eskatzaileek emandako informazioa osatzeko dokumentazioa, eskabideak eta proiektuak hobeto balioestearren.

9. artikulua. Esleipen-prozedura

1. Basaldea zentroko azpilursailak erabiltzeko eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, araudi berri hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatuta. Lehen esleipena ebatzi ostean, deialdi ireki iraunkorraren sistema ezarriko da, esan nahi baita azpilursailak baliatzeko egiten diren eskabideak aztertu, hautatu eta uzteko zereginak modu jarraituan egingo direla, beti ere zer azpilursail erabilgarri dauden kontuan izanik. Lursail erabilgarririk ez bada, eskabidea itxarote zerrenda batean jasoko da, puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran (10. artikulua).

2. Nekazaritza ekologikoko enpresa-mintegiko azpilursailen bat eskuratu nahi dutenek honako urrats hauek egin beharko dituzte:

Eskabidea aurkeztea, Gasteizko Udalak emandako eredia baliatuz, eta aginduzko dokumentazioa (8. artikulua) ere aurkeztea, bide hauetakoren bat erabiliz:

Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea. Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Halakoetako artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpetarik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio —Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz—. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

Dokumentazioa paperean aurkeztea: Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko lana errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarriaren batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta, beraz, digitalizatzerik ez badago, karpeta batean aurkeztu beharko da, edukiaren aurkibidearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, non zehazten den zein udal zerbitzuri dagokion deialdiko dirulaguntzen lerroa.

Egoitza elektronikoaren bidez: Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

3. Hurrengo artikuluan adierazten diren irizpideen arabera balioetsiko dira proiektuak.

4. Proiektua balioetsi ondoren, baldin eta gutxienerako puntuazio lortzen badu eta une horretan erabilgarri dagoen azpilursailik badago, lursaila esleitu eta kontratua idazteko beharrezko den dokumentazioa eskatuko da (11. artikulua).

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren banan-banako ebazpenen bidez onartu edo ukatuko dira eskabideak, horretaz arduratzen diren teknikariek txostena egin ondoren; gutun ziurtatuaren bidez edo posta elektronikoz jakinaraziko da hori, eta interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute balioespenaren gaineko erreklamazioak aurkezteko.

Aurkeztutako eskabideekin lotutako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsona edo entitateek, tramitazioak iraun bitartean operatibo, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

5. Beharrezko den gutxieneko puntuazioa lortu arren lursailik eskuratu ez dutenak itxarote zerrenda batean —puntuazio handienetik txikienera ordenatuta— geratuko dira, hori baliatuko baita hutsik geratzen diren lursailak esleitzeko, hurrenkerari jarraiki.

Une horretan lursail erabilgarririk ez dagoelako horrelakorik esleitu ez zaion proiektu bat ebaluatzen den bakoitzean eguneratuko da zerrenda.

6. Itxarote-zerrenda udalaren iragarki-taulan jarriko da ikusgai, eta aldi berean eguneratuko da; zerrendakideek hartan jarraitzeko nahia adierazi beharko dute, baita horretarako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzen ere.

7. Itxarote-zerrendan daudenen baremazioa berrikusteko eskatu ahal izango dute, zirkunstantziak aldatzen direlarik. Ofizioski ere egingo da berrikuste hori, interesdunei entzunaldia eskaini ondoren, baldin eta zerrenda-kideen zirkunstantziak aldatu egin direla jakiten bada.

8. Proiektu berritzaile edota pilotuen kasuan, dena delako deialdian zehaztuko da esleipen-prozedura.

10. artikulua. Eskabideei baremoa aplikatzea

1. Proiektu bakoitzak gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango ditu. Irizpide hauek aintzat harturik balioetsiko dira proiektuak:

a. Enpresa proiektua eta negozioaren bideragarritasun plana. 10 puntu. (Atal honetan gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten proiektuak baztertu egingo dira).

a.1. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. Gehienez 6 puntu.

Ekonomi eta finantza azterketaren sakontasuna balioetsiko da, aldagai hauek aintzat harturik: finantziario premiak; finantziario iturriak; emaitzen aurreikuspena, bi urteren burura; errentagarritasun-atalasearen kalkulua; hileko diruzaintza-aurreikuspena, bi urteren burura.

a.2. Proiektuaren kalitate, azterketa eta garapen maila. Gehienez 4 puntu.

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena (definizioa eta ezaugarri teknikoen azalpena, estaltzen dituen beharrak, berrikuntza maila...); merkatuaren azterketa (sektorearen ezaugarriak, eskariaren azterketa, konkurrentziaren azterketa, DAFO azterketa...); merkataritza plana (salmenten aurreikuspenaren azterketa, produktuaren politika, prezio-politika, banaketa-politika, komunikazio-politika, hazteko gaitasuna...); antolakuntza plana (ekoizpen prozesuaren, horniduraren, baliabide naturalen eta besteren azterketa).

b. Sustatzaile-taldearen konpromiso-maila: 3 puntu.

b.1. Proiektuan erabateko dedikazioarekin lan egingo duen pertsona bakoitzeko, 0,5 puntu. Gehienez puntu 1.

b.2. Sustatzaileek negozioan eta jarduera garatuko den sektorean duten esperientzia eta ezagutza. Gehienez 2 puntu.

c. Lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten multzoetakoren batekoa izatea. 2 puntu.

c.1. Multzo hauetakoren baten barruan sartzen den proiektuko kide bakoitzeko, 0,5 puntu: emakumeak, 34 urtetik beherakoak, nekazaritza-lanerako ezintzen ez duen ezintasunen bat duten pertsonak, aspalditik lanik gabe dauden 45 urtetik gorakoak. Gehienez 2 puntu.

Berdintasuna egokituz gero, emakumeak buru diren proiektuei emango zaie lehentasuna. Berdinketa sexu bereko pertsonen artean egokitzen bada, azalpen-txostenaren eta bideragarritasunaren atalean puntuaziorik handiena lortu duena nagusituko da.

2. Proiektu berritzaile eta/edo proiektu pilotuen baremazioa dagokion deialdian zehaztuko da.

11. artikulua. Dokumentazioa eta modua

1. Esleipendunei ematen zaien titulua dagokion kontratua formalizatuz gauzatuko da, non azpilursailaren eta negutegiaren xedea, definizioa eta kokalekua zehaztuko baitira, baita erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta esleipenaren indarraldia ere.

2. Kontratuak idatziz formalizatuko dira, lursaila esleitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean. Esleipendunaren kontura izango dira kontratua formalizatu nahiz eskriturak egitearen ondorio diren notario eta erregistro gastuak, zergak eta gainerakoak.

3. Azpilursaila esleitu ondoren, dokumentazio hau eskatuko da kontratua formalizatzeko aldera:

- Nekazaritza-ustiapenerako txartela.
- EJZren alta (halakorik bada).
- Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluaren (ENEK) izen-ematearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzako dena delako erregimenean izena eman dela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia, eta horren prima ordaindu izanaren ordainagiria edo egiaztatzea.
- Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalaren oinarritzko mailako txartelaren kopia.
- Prestakuntza betekizunak betetzearen justifikazioa (beharrezkoa bada).

Eskabidea egiteko unean artean eratu gabe dauden enpresen kasuan, gerora aurkeztu ahal izango dira eratze eskritura, EJZri dagokion alta (beharrezkoa bada), Nekazaritza Ustiategiaren Txartela, dagokion erregimenean autonomo/enpresa gisa alta emanda egotearen ziurtagiria, nekazaritza ekologikoaren erregimeneko alta eta enpresaren IFZ. Dokumentazio hori, edo eskatu dela egiaztatzen duten ziurtagiriak, gehienez ere 9 hilabeteko epean aurkeztu beharko da, esleipena jakinarazten denetik kontatzen hasita (enpresa izanez gero, hilabeteko epean).

Jarduerari ekiten ez bazaio, edo legezko eran eratzten ez bada, epea amaitutakoan automatikoki baliogabetuko da kontratua.

4. Kontratua formalizatu aurretik, eta horrek berekin ekarriko dituen betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko aldera, esleipendunak bermea ezarri beharko du, zein dirulaguntzarik gabeko sei hilabeteko prezio edo errentaren parekoa izango baita. Berme hori udaletxean dirutan ordainduz ezarri beharko da, edo, bestela, behar bezala adostutako banku-abal baten bitartez, eta esleipen-aldi osoan eutsiko zaio, kontratu berria egiten den bakoitzean eguneratzeko beharrik gabe.

5. Kontratua formalizatu dadin, betekizun guzti-guztiak bete beharko dira, eta dokumentazioa aurkeztu. Betekizunen bat betetzen ez bada, dena delako esleipena baliorik gabe geratuko da.

12. artikulua. Jarduerari hasiera ematea, prezioa eta gastuak, eta emakidaren baldintzak

1. Gehienez ere hilabeteko epean ekin beharko dio jarduerari esleipendunak baratze-lur-sailean, esleipena formalizatzen den egunetik kontatuta, baldin eta eguraldiak aukera ematen badu, baldintza egokiak badaude eta lurra sasoiaren badago. Horrez gain, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio epe hori zabaltzerik izango da, Ekonomia Sustapenaren zinegotzi ordezkariekin ebazpen arrazoituaren bitartez.

Esleipenaren berri eman eta kontratua formalizatzen den arteko epean, esleipendunak lurra prestatzeko lanak kontratatuta ahalko ditu, bere kontura: lurra ongarritu, baratze-alorrak zedarritu, ureztatzea instalatu. Aldez aurretik, horretarako baimena eskatu beharko dio Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari, idatziz; orobat aurkeztu beharko ditu erantzukizun zibileko aseguruaren kopia, horren prima ordaindu izanaren ordainagiri edo egiaztatzea, eta bermea jarri izanaren ordainagiri edo egiaztatzea, artean aurkeztu ez baditu.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio esleipena formalizatzen ez bada, ezingo zaizkio Udalari erreklamatu egindako gastuak.

Esleipena formalizatzen bada, ezingo zaizkio inola ere erreklamatu gastu horiek Udalari.

2. Hektarea eta urteko 309,40 eurokoa izango da kanona, eta urtero eguneratzerik izango da, Estatuko Kontsumo Prezioen Indizea aintzat harturik.

Basaldea proiektuarekin lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, lursail horien prezioek ehuneko 50eko hobaria izango dute lehengo bost emakida-urteetan. Gerora, emakidaren esleipendunak Basaldeko egonaldia luzatzen badu, ezingo du dirulaguntzarik jaso.

3. Esleipendunak bere gain hartu beharreko gastuen ordainketa hilero egin beharko da, lehen hamabostaldian egin ere, dela udal ogasunaren bulegoetan, dela banku-helbideraketaren bitartez.

4. Esleipendunaren eta ez besteren kontura joango dira banako kontagailua duten zerbitzuen kontsumo-gastuak, hala nola ur edo energia kontsumoari dagozkionak, baita udalak zehazten dituen zerbitzu komunei dagozkienak ere, eta negozioari dagozkion edo haren ondorioz ezartzen diren aseguru-gastu, zerga, ariel, kontribuzio eta gainerakoak.

5. Esleipendunek beste lursail batera aldatzea eskatu ahal izango dute, baldin eta lursail erabilgarririk bada. Horretarako, eskabide formala aurkeztu beharko dute, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak azalduz, eta Udalaren zerbitzu teknikoek onetsi beharko dute. Aldaketa horrek ez du ekarriko berekin mintegiko egonaldiaren epeak luzatzea.

6. Baldin eta proiektua onartu ondoren azpilursailen egitekoa zen jarduera aldatu nahi bada, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena eskuratu beharko da alde zuzenetik.

13. artikulua. Eskualdatzea eta iraungipena

1. Azpilursailak erabiltzeko eskubidea ezingo da eskuz aldatu, emandako epea agortzen delarik iraungi egingo da, eta arrazoi hauetakobat egokitzen delarik baliogabetu ahal izango da:

- Bi aldeek hala adosten dutelarik.
- Ebazpen judiziala dela medio.
- Esleipendunak atzera egiten duelako, edo uko egiten diolako.
- Bi hilabeteko errenta ez ordaintzeagatik.
- Jarduerari hitzartutako epean ez ekiteagatik.
- Jarduera behin betiko bertan behera uzten delarik.
- Azpilursaila araudi honetan ezartzen direnez bestelako erabilera edo helburuetarako baliatzeagatik.
- Hilabetetik gora azpilursaila eta/edo negutegia erabili edo lantzeari uzteagatik, erabat edo ezkutuan (aldian behingo maneiua, ia diru-sarrerarik ez).
- Azpilursaila —osorik nahiz zati bat— besteri lagatzeagatik, alokatzeagatik edo zergape-tzeagatik.
- Araudian tipifikatutako arau-hauste oso larri batengatik zigorra jartzen delarik.
- Araudi honetan, deialdiaren berariazko oinarrietan eta kontratuari aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako gainerako betebeharrak eta obligazioak ez betetzeagatik.

2. Esleipendunak hitzartutako epea bukatu aurretik egin ahal izango dio uko emakidari, nahiz eta gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko duen, idatziz. Kasu horretan, baita esleipendunaren emakida iraungi, bertan behera utzi edo baliogabetzea egokitzen delarik ere, ezingo du berriro azpilursailik eskatu, gerora.

III. Titulua. Erantzukizun-erregimena

14. artikulua. Esleipendunaren erantzukizuna

1. Esleipenduna izango da azpilursailean bideratzen dituen jardueren ondorioz Udalari nahiz besteri eragiten dizkion kalte eta galera ooren erantzule, eta, aitzitik, Gasteizko Udalak ez du inongo erantzukizunik izango horretan.

2. Gasteizko Udala ez da izango, inolaz ere, azpilursailean, bertako produktu edo fruituetan nahiz erabiltzaileak han gordetzen dituen lanabesetan ekintza bandalikoan, lapurretan edo besteren ondorioz suertatzen diren kalteen erantzule, ezta haren eskura jartzen diren erabilera partekatuko lanabes eta tresnen erabileratik sortzen direnena ere.

3. Enpresa zentroko funtzionamendu araudia kontuan izan beharko du uneoro esleipendunak, eta, hala egin ezean, bertan aurreikusten diren zigorrak ezarri ahal izango zaizkio.

4. Behar den prozedura izapidetuko da esleipendun izaera galtzea ekarriko duen ebazpena eman aurretik: gertakariak azalduko dira, 10 eguneko alegazio epea emango zaio interesdunari eta, guztiaren buruan, behin betiko ebartziko da dosierra.

5. Esleipendunak araudi honetan eta kontratuari aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, bermearen parte bat nahiz berme osoa bahituz zigortu ahal izango da, entzunaldi izapidetaren ondoren, eta, horrez gain, esleipena bertan behera utzi eta indarrean dauden arauen arabera aplikatu daitezkeen bestelako neurriak hartu ahal izango dira.

15. artikulua. Lehengo egoerara bihurtzea

1. Jaso zutenekoaren antzeko egoeran edo hobean itzuli beharko dituzte esleipendunak lagatzen zaizkien azpilursailak.

2. Instalazioak hondatuz gero —eta hondamen hori eguneroko erabilera arruntari egotzerik ez badago—, konpondu edo jatorrizko egoerara bihurtu beharko dituzte azpilursailen erabiltzaileak.

3. Erabiltzailearen batek ez badu betetzen egoera lehengora bihurtzeko betebeharra, Udalak egin ahal izango du zuzenean, haren kontura, eta administrazioak halakoetan ordainarazteko duen ahalmenaz baliatu gero.

IV. Titulua. diziiplina-erregimena

16. artikulua. Arau-haustek

1. Araudi honen kontrako egintzek nahiz ez-egiteek administrazioko arau-hausteen izaera izango dute, eta bertan zehazten diren kasuetan, moduan eta neurriekin zigortuko dira, salbu eta lege penaletan jasotzen diren delituak edo hutsegiteak izan badaitezke.

2. Nekazaritza-ekoizpen primarioaren higieinarekin eta produktu fitosanitarioen erabilerarekin lotuta zein landareen osasunarekin lotuta egiten diren arau-haustek Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari jakinaraziko zaizkio, haren eskumena baita horrelakoak ikuskatzea eta dossier zigortzailea bideratzea.

17. artikulua. Sailkapena

Aurreko ataleko 1. puntuan aipatutako arau-haustek arinak, larriak nahiz oso larriak izan ahalko dira.

1. Araudi honen kontrako arau-haustek arintzat joko dira, hurrengo ataletan berariaz larritzat edo oso larritzat jotzen direnak izan ezik.

2. Arau-hauste larritzat joko da mintegia ezartzeko lanetan laguntzen duten udal langileei, langile azpikontratatupei nahiz beste edozein erabiltzaileari tratu txarrak ematea, ahoz nahiz ekintzez, betebeharrak komunak betetzeko orduan, baita espazioak gaizki edo oker erabiltzea ere, hau da, araudia urratuz. Era berean, arau-hauste larritzat joko da urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.

3. Orobat joko dira arau-hauste oso larritzat honako hauek: lursaila eta instalazioak, zertarako utzi diren, beste edozertarako baliatzea; mintegian sartzeko aurkeztu beharreko agiriak, sinadurak, zigiluak eta datu nabarmenak faltsutzea; Udalarekiko betebeharrak ekonomikoak ez betetzea; Mintegiaren Araudia behin eta berriro urratzea, eta hiru arau-hauste larri egitea.

18. artikulua. Ikuskapena

1. Udalak izendatutako langileek ikuskatze-lanak egin ahal izango dituzte utzitako instalazioetan, nekazaritza-lanak egiteko ezarritako ordutegien barruan. Langile horiek agintaritzat joko dira, beren ikuskatze zereginetan dihardutelarik.

Era berean, alkateak eta zerbitzuaren gaineko eskumena duen zinegotzi ordezkariak zeregin eta egiteko berak izango dituzte.

2. Azpilursail ekologikoen erabiltzaileek bertara sartzeko utzi beharko diete udal langile horiei, baita eskatzen dizkieten argibideak eman ere, lursailetan lantzen direnen kudeaketari, erabilerari eta ustiapenari jarraipena egiterik izan dezaten hartara.

3. Animaliarik edukiz gero, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko langile baimendunek kontrol, erregistro eta ikuskapen-bisitak egiteko bide emango du titularrak.

4. Erabiltzaileek Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programan sartuta egon beharko dute, zeina EAEko Nekazaritza Elikakatearen Kontrol Ofizialerako 2016-2020ko Planean txertatuta baitago. Landareen osasunaren alorreko araudia ere bete beharko dute. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko langile baimendunek kontrol-, erregistro- eta ikuskapen-bisitak egiteko bide emango dute erabiltzaileek.

19. artikulua. Zigorak

1. Zigorak jartzeko eta horien zenbatekoak zehazteko araudi honetan zehazten diren mailakatzeko-irizpideak hartuko dira aintzat, artikulua honetako 5. puntuan jasotako ez-betetzeen kasuan izan ezik, orduan Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari (edo eskumena duen sailari) emango baitzaio horren berri, dagokion zigorra ezar dezan.

2. Arau-hauste arinak ohartarazpenez eta/edo 60,00 eurotik 300,00era bitarteko isuna jarriz zigortuko dira.

3. Arau-hauste larriak ohartarazpenez eta/edo 301,00 eurotik 1.000,00era bitarteko isuna jarriz zigortuko dira, edo esleipena aldi baterako bertan behera utziz, hilabete batetik urtebetera bitartean.

4. Arau-hauste oso larriak 1.001,00 eurotik 3.000,00era bitarteko isuna jarriz zigortuko dira, edo esleipena baliogabetuz.

5. Nekazaritza-ekoizpen primarioaren higieinarekin eta produktu fitosanitarioen erabilerarekin lotutako zein landareen osasunarekin lotutako ez-betetzeak lege hauetan aurreikusitako arau-hauste eta zigoren erregimenak kontuan hartuz zigortuko dira, gaiaren arabera: Landareen Osasunari buruzko azaroaren 20ko 43/2002 Legea, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legea, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorra, eta Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra.

20. artikulua. Zigortzeko eskumena duen agintaria

1. Alkateak izango du zigorak jartzeko eskumena, higieinarekin eta produktu fitosanitarioen erabilerarekin edo landareen osasunarekin lotutakoetan izan ezik.

2. Nolanahi ere, beste edozein organo lokalen esku utzi ahal izango du alkateak zigortzeko eskumena, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen ildotik.

3. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak du zigortzeko eskumena higieinarekin eta produktu fitosanitarioen erabileraren zein landareen osasunaren alorretan.

21. artikulua. Prozedura zigortzailea

Arau-hausleei zigorrak jartzeko, aldez aurretik prozedura zigortzailea abiarazi eta izapidetu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako prozeduraren ildotik.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Araudi hau indarrean jartzen delarik, indargabetu egingo dira bertan araututakoaren kontrako diren, horrekin kontraesanean dauden nahiz bateraezinak diren maila bereko udal-arauak oro.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean araudi hau.

I. eranskina / Anexo I

Basaldea Nekazaritza Ekologikoko Enpresen Zentroa / Centro de empresas agroecológicas Basaldea

